 — *No hay mus y paso a la grande.*
 — *Que vaya.*
 — *Envido tres a la pequeña.*
 — *No quiero.*
 — *Pares sí.*
 — *Yo también los tengo.*
 — *Entonces cinco a los pares.*
 — *Quiero.*
 — *Está bien, juego sí.*
 — *Y yo también.*
 — *Otras cinco, cinco al juego.*
 — *Muy bien... ¡Todo el juego!*
 — *No quiero.*
 — *Tú tienes mucho miedo.*
 — *¿Quién ha ganado?*
 — *Vosotros habéis perdido.*

— *Kepa, jokatu gura dozu?*
 — *Bai, neuk be jokatu gura dot.*
 — *Ondo dago. Jesarri zaitex ementxe.*
 — *Nor izango da nire lagun?*
 — *Neu, aske nago-ta.*
 — *Ederto. Zenbatera goaz?*
 — *Iru jokotara.*
 — *Nok emongo dauz kartak?*
 — *Bateko urrea ataraten dabenak.*
 — *Ona emen bateko urrea. Neuk emongo dodaz.*
 — *Kartak ondo nastau.*
 — *Bai, gizona, bai. Ebagi egizuz, ba.*
 — *Nor izango da esku?*
 — *Beti lez. Musa kentzen dauana.*
 — *Ni mus naz.*
 — *Ni be bai.*
 — *Zenbat karta gura dozuez?*
 — *Nik danak, ez daukat ezer.*
 — *Or daukozuz lau. Eta zuk?*
 — *Nik bat baiño ez dot gura.*
 — *Mus.*
 — *Musik ez dago, ta andira paso.*
 — *Doala.*
 — *Txikira iru enbido.*
 — *Ez dot gura.*
 — *Pareak bai.*
 — *Nik be badaukadaz.*
 — *Orduan pareetara bost.*
 — *Gura dot.*
 — *Ondo dago, jokoa bai.*
 — *Eta neuk be bai.*
 — *Beste bost jokora.*
 — *Ederto... Ordago!*
 — *Ez dot gura.*
 — *Zu, oso bildur zara.*
 — *Nok irabazi dau?*
 — *Zuek galdu dozue.*



22'garren ALKARRIZKETA

Burdin-bidean ibilte bat.



CONVERSACION 22.ª

Un viaje en ferrocarril

- ¿Begoña, estás preparada?
- Ahora mismo terminaré.
- Anda ligera, que es tarde, y...
- Sí, Ignacio, ¿qué hora es, pues?
- Son las dos y diez.
- ¿Y a qué hora sale el tren?
- Saldrá a las tres y veinte.
- Todavía tenemos mucho tiempo.
- Sí, pero debemos llegar con tiempo para sacar los billetes y coger buenos sitios.
- Es verdad. Puedes llamar a un taxi. En seguida estoy preparada.

.....

- ¡Taxi! ¿está libre?
- Sí, señor.
- Por favor, espere un poquito, hasta que venga mi esposa... Aquí viene.
- ¿Adónde desean ir?
- A la estación de Achuri.
- Muy bien.
- Hemos llegado, señor.
- ¿Cuánto es?
- Setenta pesetas.
- Ahí tiene setenta y cinco, cinco para usted.
- Muchas gracias y andar bien.

.....

- Begoña, voy a sacar los billetes y mientras tanto espérame junto a la puerta del andén.
- Sí, Ignacio.

- Begoñe, gertu zagoz?
- Oraintxe amaituko dot.
- Arin ibili zaitetz, berandu da-ta...
- Bai, Iñaki, ze ordu da, ba?
- Ordu biak eta amar dira.
- Eta, ze ordutan urtetan dau bultziak?
- Irurak eta ogeian urtengo dau.
- Ondiño astirik asko daukagu.
- Bai, baiña garaiz eldu bear dogu, txartelak atara ta leku onak aukeratzeko.
- Egia da. Taxi bateri deitu zeunskio. Beingoan gertu nago.

.....

- Taxi! aske daukazu?
- Bai jauna.
- Mesedez, itxaron apurtxu bat, nire emaztea etorri arte... Emen dator.
- Nora joan nai dozue?
- Atxuri'ko geltokira.
- Ederto.
- Eldu gara, jauna.
- Zenbat da?
- Irurogetamar laurleko.
- Or daukazuz irurogetamabost, bost zuretzat.
- Eskarrik asko, ta ondo ibili.

.....

- Begoñe, txartelak ataratera noa, ta bitartean, itxaron naizu espaloiko ate ondoan.
- Bai, Iñaki.

- *Dos billetes de primera para San Sebastián, por favor.*
- *¿Quiere usted de ida y vuelta?*
- *Quiero de ida solamente.*
- *¿Cuánto es?*
- *Quinientas veintiocho pesetas.*
- *Begoña, aquí tengo los billetes.*
- *Entonces, vamos ligeros para coger buenos sitios.*
- *Sí, hay muchos viajeros y no sé si tendremos sitio.*
- *Mira, Ignacio, está medio vacío este vagón.*
- *¡Hale! ¡arriba!, subamos, pues. Siéntate aquí mismo, junto a la ventanilla.*
- *¿Tenemos buen sitio, verdad?*
- *Ya lo creo. Guárdame el sitio, voy a comprar unas revistas y periódicos.*
- *Está bien, pero anda de prisa, si no perderás el tren.*
- *No te apures, hay que esperar mucho tiempo todavía.*

.....

- *Señora, ¿en este vagón hay algún sitio?*
- *Sí, señor, hay dos sitios libres.*
- *Muchas gracias, a este vagón entraré. ¿Cuáles son los sitios libres?*
- *Esos dos, junto a la puerta.*
- *Muy bien, éste es buen sitio.*

.....

- *Begoña, ya estoy aquí.*
- *¿Qué revistas has comprado?*
- *“Kirolak” y “Selecciones”...*
- *¿Quieres leer?*
- *Ahora no, después.*

.....

- *Escucha, Begoña, el tren ha silbado, ahora saldrá.*

- *Txartel bi, lenengo maillakoak, Donosti'rako, mesedez.*
- *Joan-etorria gura dozu?*
- *Joakerea baiño ez.*
- *Zenbat da?*
- *Boste guti eta ogetazortzi laurleko.*
- *Begoñe, txartelak emen daukadaz.*
- *Orduan, goazen leku onak aukeratzera.*
- *Bai, bidazti asko dabil eta ez dakit lekurik izango dogun.*
- *Beitu, Iñaki, buzpurdi auxe erdi utsik dago.*
- *Tira! gora! igo gaitez, ba. Ementxe jesarri, leio ondoan.*
- *Leku ona daukagu, ezta?*
- *Baietz uste dot. Zaindu eistazu lekua, aldizkari ta izparringiak erostera noa.*
- *Ondo dago, baiña arin ibili, bestela bultzia galduko dozu.*
- *Ez zaitetz estutu. Ondiño luzaro itxaron bearra dago.*

.....

- *Andrea, buzpurdi onetan jesarleku utsik ete dago?*
- *Bai jauna, leku bi utsik dagoz.*
- *Eskarrik asko, buzpurdi onetantxe sartuko naz. Zeintzuk dira aske dagozan lekuak?*
- *Orreik, ate-aldeko biak.*
- *Ederto, auxe da leku ona.*

.....

- *Begoñe, emen naz.*
- *Zelako aldizkariak erosi dozuz?*
- *“Kirolak” eta “Selecciones”. Irakurri gura dozu?*
- *Orain ez, gero.*

.....

- *Begoñe, entzun, bultziak txistu egin dau, oraintxe urtengo dau.*

- Sí, Ignacio, el tren ha echado a andar.
- ¡Caramba!, ¿qué oscuridad es ésta?
- El primer túnel. Es corto, en seguida saldrá.
- Este tren lleva diez vagones y sin embargo anda ligero.
- Así es.
- Señores, señoras, los billetes, por favor.
- Tómelos usted.
- Muchas gracias.
- Oiga, señor, por favor, cierre la puerta para que no entre el aire.
- Sí, señor, con mucho gusto.
- ¿A dónde van ustedes?
- Vamos a San Sebastián, ¿y usted?
- Yo voy a Elorrio, en Durango tengo que bajar para cambiar de tren.
- Ahora pasamos por Euba.
- Begoña, mira aquellos montes.
- Sí, Ignacio, ¿qué montes son?
- Amboto y Urquiola. Todavía no se ha derretido la nieve de sus cimas.
- Estamos cerca de Durango.
- Ya hemos llegado. Aquí me quedo. Adiós, señores, les deseo buen viaje.
- Adiós, señor.

.....

- Ahora vamos por un desfiladero junto al río y estamos pasando por un puente.
- Begoña, pronto llegaremos a Deva y veremos el mar...
- Hemos llegado a Deva y el mar está a la vista, ¡qué hermosos sitios son éstos para el verano!
- Así lo creo. Es encantadora toda la costa vasca.

.....

- Ignacio, ¿cuándo llegaremos?
- Vamos atrasados, pero estamos cer-

- Bai, Iñaki, bultzia abiatu da.
- Kontxo! zer da illunpe au?
- Lenengo mendizuloa. Laburra da, laster urtengo dau.
- Bultzi onek amar buzpurdi dараоз, eta alan ta be, arin dabil.
- Olantxe da.
- Jaunak, andereak, txartelak mesedez.
- Artu eizuz.
- Eskerrik asko.
- Entzun jauna, mesedez itxi egizu atea, aizea sartu ez daiten.
- Bai jauna, atsegin aundiz.
- Nora zoaze zuek?
- Doností'ra goaz, eta zu?
- Ni Elorrio'ra noa, Durango'n jatsi bear dot bultziz aldatzeko.
- Orain Euba'n-zear goaz.
- Begoñe, ikusi eizuz mendi areik.
- Bai Iñaki, zeintzuk mendi dira?
- Anboto ta Urkiola. Euren tontorretako edurra ez da oindiño urtu.
- Durango urrean dogu.
- Eldu gara. Emen geratzen naz; agur jaun-andreak, ibilte ona opa dau-tzuet.
- Agur, jauna.

.....

- Orain menditartean goaz, ibai ondoan, zubi bat igaroten.
- Begoñe, laster Deba'ra elduko gara ta itsasoa ikusiko dogu.
- Deba'ra eldu gara ta itxasoa agiri da; toki ederrak dira oneik udarako!
- Olan uste dot. Euskal-itxasalde guztia zoragarria da.

.....

- Iñaki, noiz elduko gara?
- Atzeratuta goaz, baiña urrean gagoz

ca y dentro de un cuarto de hora llegaremos.

- Ha empezado a parar el tren, ¿estamos acaso en la estación?
- Sí, estamos en San Sebastián y podemos bajar. Vamos ligeros para coger un taxi.



- Buenas tardes.
- Bienvenidos, señores, al Hotel de la Costa Vasca. ¿Qué desean?
- Desearíamos una habitación con una cama de matrimonio.
- No puede ser, señor, ahora todas están ocupadas, pero tenemos habitaciones con dos camas individuales.
- Está bien, entonces tomaremos una de esas.
- ¿Con cuarto de baño?
- Sí, señor, preferimos con cuarto de baño.
- ¿Quieren solamente la habitación, o pensión completa?
- Queremos solamente la habitación, sin embargo desearíamos desayunar en el hotel.
- Sí, señor, pueden desayunar. ¿Cuántos días estarán en el hotel?
- Estaremos esta noche y mañana sábado todo el día y el domingo por la mañana marcharemos.
- Muy bien. Ahora les enseñaré una habitación del primer piso. Vengan por aquí... Esta es la habitación, ¿les agrada?
- Sí, señor, es bonita, en ésta nos quedaremos. ¿De cuánto es?
- La habitación, quinientas cincuenta

eta ordu lauren barru elduko gara.

- Bultzia gelditzen asi da, geltokian ete gagoz?
- Bai, Donostia'n gagoz eta jatxi gaitkez. Goazen arin taxi bat artzera.

23'garren ALKARRIZKETA Ostatuan.

CONVERSACION 23.ª

En el hotel

- Arratsaldeon.
- Ondo etorri, jaun-andreak, Euskal-Itxasaldeko ostatura. Zer nai dozue?
- Gela bat ezkon-oge batekoa nai geunke.
- Ezin daiteke jauna, orain danak artuta dagoz, baiña ba doguz oge txiki biko gelak.
- Ondo dago, olan ba, orretariko bat artuko dogu.
- Garbigelaz?
- Bai jauna, garbigelaz naiago dogu.
- Gela utsa, ala ostatu osoa gura dozue?
- Gelea baiño ez; orraitio, gosaldu ostatuan egin gura geunke.
- Bai jauna, gosaldu zeinkie. Ostatuan zenbat egun egingo dozuez?
- Gaurko gaua eta biar larunbatez egun guztian egongo gara ta igande goizean alde egingo dogu.
- Ederto. Orain, lenengo etxoiñeko gela bat erakutsiko dautzuet. Etorri zaitze emendik... Auxe da gelea, atsegin yatzue?
- Bai jauna, polita da, ementxe geratuko gara. Zenbatekoa da?
- Gelea, bosteun eta berrogetamar

pesetas, y cada desayuno a sesenta pesetas. Tome la llave del cuarto. Es el n.º 6.

- *Está bien, muchas gracias. Ahora iremos a pasear por la Concha y después cenaremos en un restaurante típico del puerto.*
- *Muy bien, señores. El hotel está abierto noche y día. Pueden venir cuando lo deseen. Al salir deje la llave en recepción y al venir la puede recoger. Anden ustedes bien, señores.*

I.—Al acostarse

- *Buenas noches, señores.*
- *Igualmente. Dénos por favor la llave del cuarto n.º 6.*
- *Tómela usted, señor.*
- *Muchas gracias. Mañana por la mañana llámenos a las ocho y media, por favor.*
- *Muy bien, señor, así lo haré.*
- *¿Podrán limpiar los zapatos?*
- *Sí, señor, sáquelos a la puerta de su cuarto.*
- *Está bien..., hasta mañana.*
- *Duerman bien.*

II.—Al levantarse

- *Tirín... tirín... tirín...*
- *¿Quién está llamando?*
- *Buenos días, señor, soy el camarero. Son las ocho y media, ¿han dormido bien?*
- *Muy bien, muchas gracias.*
- *¿Desean ustedes que lleve el desayuno a su habitación?*
- *No, ya bajaremos al comedor, cuando estemos arreglados.*
- *Está bien, señor. Hasta luego.*

III.—El desayuno

- *¿En qué mesa podemos sentarnos?*
- *En esta mesa. ¿Qué desean para desayunar?*

laurleko, ta gosari baktxa irurogei. Artu eizu gelako giltza. Seigarren zenbakia da.

- Ondo dago, eskerrik asko. Orain Kontxa aldetik joango gara ibillaldi bat egitera, ta gero, kai aldeko jate-txe jator batean atalduko dogu.
- Ederto, jaun-andreak. Ostatur gau ta egun irigita daukazue. Nai dozue-nean etorri zindekeze. Urtetzerakoan, giltza laga egizue beko sarrera-maian, ta etorterakoan, artu. Ondo ibili, jaun-andreak.

I.—Lotarakoan.

- Gabon, jaun-andreak.
- Baita zeuri be. Emoiguzu mesedez seigarren gelako giltza.
- Artu eizu, jauna.
- Eskerrik asko. Biar goizean zortzi ta erdietan dei egiguzu, mesedez.
- Ederto, jauna, olan egingo dot.
- Oiñetakoak garbitu al izango dozue?
- Bai jauna, zure gelako ateondoan laga eizuz.
- Ondo dago... biar arte.
- Ondo lo egin.

II.—Jagikeran.

- Tirrin... tirrin... tirrin...
- Nok deitzen dau?
- Egunon, jauna, gelazaiña naz, zortzi ta erdiak dira, ondo lo egin dozue?
- Ederto, eskerrik asko.
- Nai dozue, zuen gelara gosaria eroan daidan?
- Ez; jatzten garanean,geu jatsiko gara jan-tokira.
- Ondo dago, jauna. Gero arte.

III.—Gosaria.

- Ze maitan jesarri gindekez?
- Mai onetan. Zer nai dozue gosaltze-ko?

- *Para la señora: chocolate, unos bizcochos y un vaso de leche y para mí café con leche, un panecillo y mantequilla.*
- *Muy bien, señor, enseguida traeré. Mientras tanto puede leer el periódico. Ahí tiene.*

.....

- *El desayuno de ustedes aquí está. Que les aproveche.*
- *Muchas gracias.*

- *Andrearentzat: txokolatea, gozopil batzuk eta edontzi bat esne, eta niretzat akeita esneaz, opiltxu bat eta guriña.*
- *Ederto, jauna, berealaxe ekarriko dot. Bitartean izparringia irakurri zeinke. Or daukozu.*

.....

- *Zuen gosaria emen dozue. On egin daizuela.*
- *Eskerrik asko.*




24'garren ALKARRIZKETA

Bazkaria jatetxe batean.

CONVERSACION 24.ª

La comida en un restaurante



- *Begoña, es ya la una... y tenemos que ir a comer; con el paseo y el aire del mar, hoy tengo más hambre que ayer.*
- *Yo también, ¿a dónde iremos?*
- *Podemos subir a Igueldo, ¿qué te parece?*
- *Muy bien. El tiempo es hermoso para subir allí y contemplar San Sebastián.*

.....

- *Buenos días, deseáramos comer en una mesa junto a la ventana.*
- *Está bien, señor, ¿cuántos son?*
- *Solamente mi esposa y yo. Mire, ¿podemos sentarnos en aquella mesa junto a la ventana del centro?*
- *Lo siento, señor, esa mesa está reservada, pero en esta otra pueden sentarse. La vista panorámica de la Concha es igual.*
- *Está bien. Nos sentaremos en esta*

- *Begoñe, ordubatak dira, ta bazkaltzera joan bear dogu; ibillaldiaz eta itxasoko aizeaz, gaur atzo baiño goseago naz.*
- *Nau be bai, nora joango gara?*
- *Igeldo'ra igon gaitkez, zer deritxazu?*
- *Ederto. Eguraldi ederra dago ara igoteko, ta andik Donostia ikusteko.*


.....

- *Egunon, leio ondoko mai batean bazkaldu nai geunke.*
- *Ederto, jauna, zenbat zarie?*
- *Emaztea ta biok baiño ez. Begira, erdiko leio ondoko mai aretan jesarri gintekez?*
- *Ezin daiteke, jauna; mai ori eskatuta dago, baiña beste onetan jesarri zaittekeze. Kontxa aldeko ikuspegia, emetik, bardiña da.*
- *Ondo dago. Mai onetantxe jesarriko*

- misma mesa. Traiga por favor la carta de comidas.*
- *He aquí, ¿desean comer a la carta o la comida del día?*
 - *Preferimos comer a la carta. Para empezar: entremeses variados. Después para la señora angulas y para mí merluza a la koskera; a continuación, perdices en salsa para los dos, y de postre, helado de fresa y tarta.*
 - *¿Qué bebida desean?*
 - *Beberemos: agua de Solares y vino tinto de Riscal.*
 - *Ahora mismo les traeré los entremeses, el agua, vino y el pan.*
 - *Mientras tanto, desde la ventana, contemplaremos la bella Easo.*
 - *Aquí tienen los entremeses, el agua, vino y el pan.*
 - *Está bien, gracias. Hay de todo un poco. Begoña, empieza.*
 - *Hoy comeré jamón y cabeza de jabaíl.*
 - *Pues yo, como ayer: gambas y percebes.*
 - *Ignacio, ¿están buenos los mariscos?*
 - *Ya lo creo, pruébalos.*
 - *Sí, los probaré después de los embutidos.*
 - *Ahí tienen las angulas y la merluza.*
 - *La merluza está muy buena. Mejor que la langosta de ayer.*
 - *Pues estas angulas no están tampoco malas, ¿quieres un poco?*
 - *Sí, las probaré. Están buenas.*
 - *Mira Begoña, ya nos traen las perdices.*
 - *Me parece que tienen buena pinta, ¿verdad, Iñaki?*
 - *Sí, por cierto.*
 - *¿Están ricas?*
 - *Excelentísimas.*
 - *¿Desean tomar algo más?*
 - *No, muchas gracias. Hemos comido bastante. Ahora traiga el postre.*
 - *gara. Ekarrizu janari-txartela, mese-dez.*
 - *Ona emen. Zer nai dozue bazkaldu, txartelekoa ala egunerokoa?*
 - *Txartelekoa bazkaltzea naiago dogu. Asiera emoteko: zizka-mizkak. Gero, txitxardiñak andrearentzat, eta lebatza koskerara niretzat; ondoren, eper-rak saltsan biontzat, eta azkenez, mailluki-izozkia eta gozopilla.*
 - *Ze edari nai dozue?*
 - *Solares'ko ura eta Riscal ardaa, edango doguz.*
 - *Oraintxe ekarriko dautzuedaz zizka-mizkak, ura, ardaa ta ogia.*
 - *Bitartean, leiotik, Easo polit-ederra ikuskatuko dogu.*
 - *Emen daukazuez: zizka-mizkak, ura, ardaa ta ogia.*
 - *Ederto. Eskerrik asko. Guztitarik dogu apur bat. Begoñe, asi zaitetz.*
 - *Gaur, urdazpikoa ta basurde-burukia jango dódaz.*
 - *Nik, barriz, atzo lez: izkirak eta lanpernak.*
 - *Iñaki, maxkuriok onak dagoz?*
 - *Bai orixe, txastatu eizuz.*
 - *Bai, txastatuko dodaz, estebeteok jan ondoren.*
 - *Or daukozuez, txitxardiñak eta lebatza.*
 - *Lebatza oso ona dago. Atzoko abakandoa baiño obea.*
 - *Txitxardin oneik be, ez dagoz txarrak, gura dozu apurtxu bat?*
 - *Bai, txastatuko dodaz. Onak dagoz.*
 - *Begira, Begoñe, eperrak ba dakarskuez.*
 - *Itxura ona daukela deritxat, ezta Iñaki?*
 - *Bai orixe.*
 - *Gozo dagoz?*
 - *Bikain-bikaiñak.*
 - *Nai dozue artu ezer geiago?*
 - *Ez, eskerrik asko. Naikoa jan dogu. Orain azkenekoa ekarri eizu.*

- *Después del postre, ¿tomarán café?*
- *Sí, tomaremos café con leche y yo una copa de coñac.*
- *Enseguida traeré todo.*
- *Begoña, después de la comida, si te parece, daremos un paseito por las terrazas del monte.*
- *Me parece bien, así nos aprovechará la comida.*

- Azkenekoaren ondoren, akeita artuko al dozue?
- Bai, akeita esneaz artuko dogu, ta nik, koñak bat.
- Berealaxe dan-dana ekarriko dot.
- Begoñe, bazkal-ostean, ondo baderitxozu, mendiko lorategiak-zear ibilalditxo bat egingo dogu.
- Ondo deritxot; olan bazkariak on egingo dausku.



25'garren ALKARRIZKETA Eztegu bat.

CONVERSACION 25.ª Una boda

- *¡Hola, Begoña!, ¿qué tal estás?*
- *Muy bien, ¿y tú Maitena?*
- *Yo también. No te vi el domingo, ¿por dónde anduviste?*
- *Anduvimos en San Sebastián, en una boda.*
- *¿En la boda de quién?*
- *De un amigo de Iñaki.*
- *¿Cuándo fuisteis?*
- *El viernes por la tarde.*
- *¿Y cuándo habéis vuelto?*
- *El domingo por la noche.*
- *¡Caramba! ¡Habéis estado en San Sebastián tres días, parrandistas! y los hijos, ¿dónde los dejasteis?*
- *En Munguía, en el caserío del abuelo.*
- *Así ya se puede vivir. ¿Qué tal fue la boda?*
- *Muy hermosa. Había muchos invitados.*
- *¿Cómo iba vestida la novia?*
- *Con un vestido largo de encajes y tela de seda blanca y el velo de tul ilusión.*
- *Estaría encantadora, ¿verdad?*
- *¡Estaba admirable!*
Yo llevaba un vestido de organza

- Agur Begoñe! zelan zagoz?
- Oso ondo, ta zu, Maitena?
- Ni be bai. Igandean ez ziñudazan ikusi, nondik ibili ziñan?
- Donostia'n ibili giñan, eztegu batean.
- Noren ezteguan?
- Iñaki'ren adiskide batenean.
- Noiz joan ziñien?
- Bariku arratsaldean.
- Eta, noiz itzuli zarie?
- Igande gabean.
- Kontxo! Iru egun Donostia'n egon zarie, parranderuok! Eta seme-alabak, non laga zenduezan?
- Mungia'n, aiteitaren baserri-etxean.
- Olan bizi leiteke. Zelangoa izan zan eztegua?
- Guztiz ederra. Ezteguna deituak ugari izan ziran.
- Emaztegaia zelan yoian jantzita?
- Sedazko jantzi luze bat, apaingarri politez ornitua, burukoa be pitxiz apaindua.
- Zoragarri egongo zan, ezta?
- Ikusgarri egoan!
- Nik, oztin-argizko organdilla jantzia

- azul claro y un abrigo de brocado azul marino.
- Y tú, ¿fuiste acaso con sombrero?
 - Yo no llevaba sombrero, sino una diadema de flores blancas.
 - ¿En qué iglesia se casaron?
 - En la de Santa María.
 - ¿En el altar mayor?
 - No, en el camarín de la Virgen Madre. Estaba muy adornado con flores blancas.
 - ¿Cómo se celebró la ceremonia de la boda, en castellano o en euskera?
 - En euskera, porque las dos familias son amantes de nuestra querida lengua.
 - Sería muy emocionante, ¿verdad, Begoña?
 - Sí, es emocionante oír en euskera la epístola de San Pablo, cuando al hombre le dice: "Compañera te doy y no esclava; ámala como Cristo ama a la Iglesia".
 - Verdaderamente es muy emocionante, sobre todo cuando se oye por primera vez.
 - Así es.
 - Y después de la ceremonia nos obsesquiaron con un suculento banquete en uno de los mejores restaurantes de San Sebastián.
 - Begoña, tengo que ir, otro día seguiremos charlando. Agur.
 - Hasta la vista, Maitena.

- neroan, eta itxas-oztiñezko gainjantzia.
- Eta zuk, ginbela eroan zenduan?
 - Nik ez neban ginbelik eroan, baiña bai lora zurizko txorta buru-inguruan.
 - Ze eleizatan ezkondu ziran?
 - Andra Mari eleizan.
 - Altara nagusian?
 - Ez. Ama Birjiñaren altara txikitxoan. Lora zuriz oso apaindua egoan.
 - Ezteguko eleizkizuna, zelan ospatu zan, euskeraz ala erderaz?
 - Euskeraz, sendi biak euskerazale zintzoak diralako.
 - Biotz-unkigarri izango zan, ezta Bego?
 - Bai, oso biotz-unkigarri da Paulo Deunaren epistolea entzutea, gizonari difotsonean: "Laguna emoten dautzut, eiz mirabea; maite egizu, Kristo'k Elizea maite dauanez".
 - Egitan oso biotz-unkigarri da, batez be, lenengo aldiz entzuten danean.
 - Olantxe da.
 - Eta eleizkizuna ondoren, Donosti'ko jatetxe onenatariko batean, bazkari eder bat eskiñi euskuen.
 - Begoñe, joan egin bear dot, urren-goan ekingo dautsogu. Agur.
 - Ikusi arte, Maitena.




26'garren ALKARRIZKETA

AMERIKETATIK IDAZKI BAT

CONVERSACION 26.ª

Una carta de América



- Ignacio, el cartero ha traído una carta de América para ti.
- ¿Dónde está esa carta?
- Iñaki, Ameriketako idazki bat ekarri dau zuretzat idazkidunak.
- Nun dago idazki ori?

- Sobre la mesa del comedor.
- Voy a leerla ahora mismo.


.....

- ¿De quién es?
- Del primo Juan que está en Caracas.
- ¿Qué te dice?
- Que viene a Bilbao.
- Y ¿cuándo llegará?
- El viernes a las cuatro de la tarde en el avión de Madrid. Y dice que vaya al aeropuerto de Sondica a esperarle.
- ¿Viene para mucho tiempo?
- Dice que estará seis meses.
- ¿Para qué viene?
- Para conocer a su familia y a su patria.
- ¿Cuántos años hace que está fuera de su pueblo?
- Hace veinte años, sus padres le llevaron cuando era muy joven.
- Y ahora ¿cuántos años tiene?
- Poco más o menos, treinta.
- ¿Está casado?
- No, todavía está soltero.
- Entonces..., a lo mejor puede venir también a buscar novia.
- Podría ser, ¿por qué no? Si encuentra una chica hermosa de su agrado.
- Y, ¿dónde se quedará a vivir?
- Unos días en un hotel de Bilbao y después irá al caserío del abuelo.
- Ignacio, yo creo que mientras Juan esté en Bilbao debe quedarse en nuestra casa. Así, desde el primer día sentirá el amor entre la familia.
- Begoña, has pensado muy bien. Así pues, cuando llegue, le ofreceremos nuestra casa. Todos iremos a esperarle con los brazos abiertos para darle la bienvenida.
- ¡Muy bien! Rosario y Javier se alegrarán mucho.

- Jantokiko mai-ganean.
- Oraintxe irakurriko dot.

.....

- Norena da?
- Caracas'en dagon Jon lengusuarena.
- Zer diñotzu?
- Bilbo'ra datorrela.
- Eta noiz elduko da?
- Bariku-arratsaldeko lauretan, Madrid'ko egazkiñean. Eta Sondika'ko egazkin-landara joateko diño, berari itzaroten.
- Luzarorako dator?
- Sei illabete egongo dala, diño.
- Zertarako dator?
- Bere sendia ta aberria ezagutzeko.
- Zenbat urte dira bere erritik kanpora dagoala?
- Orain ogei urte dira. Gazte gaztea zala eroan eben bere gurasoak.
- Eta orain zenbat urte ditu?
- Ogeitamar, gitxi gora-bera.
- Ezkondua dago?
- Ez, oindiño ezkongai dago.
- Orduan..., onenean emazte-gai billa be etorri daiteke.
- Izan leitekena da. Zergaitik ez? Bere gogoko neska eder bat aurkitu ezkerro...
- Eta, nun geratuko da biziten?
- Egun batzuk Bilbo'ko ostatu batean, eta ondoren, aititaren basetxera joango da.
- Iñaki, Jon Bilbo'n egongo dan bitartean gure etxean geratu bear leukela, uste dut. Orretara lenengo egunetik senditarteko maitasuna izango leuke.
- Begoñe, ederto oldoztu dozu. Alan ba, elduten danean, geure etxea eskiñiko dautsogu. Danok joango gara itxarotera, besoak zabalik, ongi etorria emotera.
- Ori ondo! Agurtxu ta Xabier asko alaituko dira.



27'garren ALKARRIZKETA BILBO'KO URIA IKUSTEN.

CONVERSACION 27.ª Viendo la villa de Bilbao

- *Escucha, Juan. La villa de Bilbao tiene dos partes, separadas por el río Nervión: el CASCO VIEJO, muy pequeño, con sus famosas siete calles, y el ENSANCHE DE BILBAO o la parte nueva, muy grande, con la admirable calle Gran Vía. El gran Bilbao de hoy ha nacido y crecido en las siete calles, por eso debemos verlas primero. ¿Qué te parece?*
- *Me parece muy bien, Ignacio.*
- *Entonces vamos ahora mismo.*
- *Ignacio, ¿por qué se llaman las siete calles?*
- *Porque hace aproximadamente seis siglos y medio Bilbao era un pueblo muy pequeño y no tenía nada más que esas siete calles y estaban rodeadas de murallas para su defensa.*
- *Y ¿dónde están esas siete calles?*
- *En la orilla del río Nervión y a los pies del monte Artagan. En lo alto del monte está la venerable Iglesia de Nuestra Madre de Begoña, Patrona de Vizcaya.*
- *Tendremos que ver esa iglesia.*
- *Por supuesto. Subiremos mañana por la mañana en el ascensor y desde allí veremos nuestro "bocho" y los montes que le rodean.*
- *Juan, hemos llegado al CASCO VIEJO. Mira, ésta es la iglesia de San Antón. Fue construida sobre los cimientos de un viejo castillo. A su lado estaba el antiguo ayuntamiento. En el escudo de Bilbao figuran esta iglesia y su puente.*
- *Entonces, esta iglesia es un recuerdo histórico digno de admiración.*
- *Entzun, Jon. Bilbo'ko uriak zati bi daukaz, Nerbion ibaiak bananduta: URI ZAARRA, txiki-txikia, bere zazpi kale ospetsuakaz, eta BILBO'KO ZABALKETA edo zati barria, andi-andia, Gran Vía kale ikusgarriaz. Gaurko Bilbo andia, zazpi kalietan sortu ta azi zan; orregaitik, lenengo, ori ikusi bear dogu. Zer deritxazu?*
- *Ederto deritxot, Iñaki.*
- *Olan ba, goazen oraintxe.*
- *Iñaki, zergaitik deritxoez zazpi kaleak?*
- *Orain sei gizaldi ta erdi, gitxi gorabera, Bilbo erri txiki-txikia zan eta ez eukan zazpi kale orreik baiño, ta arriesiaz inguratuta egozan, euren zain-tzarako.*
- *Eta nun dagoz zazpi kale orreik?*
- *Nerbion ibai-ertzean eta Artagan mendi-oïñetan. Mendi-ganean eleiza agurgarria dago, Begoña'ko gure Ama Andra Mari, Bizkaï'ko Zaindari.*
- *Eleiza ori ikusi bearko dogu.*
- *Jakiña. Biar goizean igongo gara igokiñez eta bertatik ikusiko doguz geure "botxo" ta inguratzen daben mendiak.*
- *Jon, URI ZAARRA alderdira eldu gara. Begira: au, Andoni Deunaren eleizea da. Gaztelu zaar baten oiñarrien ganean jaso eben. Bere alboan egon zan antziñeko Udal-etxea. Eleiza au ta alboko zubia Bilbo'ko ikurdian agertzen dira.*
- *Orduan, eleiza au edesti-gomuta arri-garri bat da.*

- *¡Ya lo creo que sí! Esta calle es la Ribera y va bordeando el río hasta el Arenal.*
- *Y ¿toda la calle tiene arcos como éstos?*
- *No, solamente hasta la quinta calle. Aquí mismo empiezan las siete calles.*
- *¿Es ésta acaso la primera?*
- *Sí, es la primera y además muy famosa: la calle Somera.*
- *¿Por qué es tan famosa?*
- *Porque hay muchas tabernas y buenos restaurantes y muchos bilbainos después de su trabajo suelen venir a esta calle a comer y beber bien.*
- *Ese edificio tan largo y hermoso ¿qué es?*
- *El nuevo mercado de la Ribera. Está en la orilla del río. Esta es la segunda calle y se llama Artecalle y la siguiente es Tendería.*
- *Y ¿dónde terminan estas calles?*
- *Somera y Artecalle en el Portal de Zamudio, Tendería y Belosticalle en el pórtico de la catedral de Santiago.*
- *Vamos a ver la catedral.*
- *Iremos por Belosticalle y verás cómo son todas estas calles.*
- *Estas calles son estrechas, cortas y oscuras, como las de los pueblos antiguos.*
- *Sí, eso es verdad; sin embargo, aquí están reunidos los mejores comercios de Bilbao y todo el día andan por estas calles muchos compradores. Este es el pórtico de la catedral. Es la iglesia más antigua de Bilbao y existía antes de la fundación de la villa. Es de estilo gótico y su esbelta torre ha podido ver el engrandecimiento de Bilbao. Está en el centro del CASCO VIEJO.*
- *Verdaderamente es admirable.*
- *Ahora iremos al Arenal por la calle Correo. He aquí el bonito paseo del*
- *Bai orixe! Ta au, Erribera kalea da eta ibai-ertzean doa Arenal'eraíño.*
- *Eta kale osoak ditu orrelako arkupeak?*
- *Ez, bosgarren kaleraiño baiño ez dagoz. Ementxe bertan asten dira zazpi kaleak.*
- *Au ete da leenengoa?*
- *Bai, leenengoa da eta ganera oso ospetsua: Goenkale, gaur Somera kalea.*
- *Zergaitik da ain ospetsu?*
- *Ardandegi asko ta jatetxe onak dagozalako. Bilbotar asko, euren lana amaitu ondoren, kale onetara etorten dira, ondo jan-edan egitera.*
- *Etxe ori, orren luzeta ederra, zer da?*
- *Erribera'ko azoka barria. Ibai-ertzean dago. Bigarren kalea auxe da, Artekale deritxo, ta urrengoa Dendarikale (Tendería) da.*
- *Eta nun amaitzen dira kale oneik?*
- *Somera ta Artekale Zamudio'ko Atadian, Tendería ta Belostikale Santiago'ko Eleiza Nagusiaren arkupean.*
- *Goazen Eleiza Nagusia ikustera.*
- *Belostikale zear joango gara ta ikusiko dozu zelakoak diran kale guzti oneik.*
- *Kale oneik estuak, laburrak eta illunak dira, antziñako errietakoak lez.*
- *Bai, ori egia da; orraitíño, Bilbo'ko saltokirik onenak ementxe dagoz alkartuta eta kale oneitan zear egun guztian erosle asko ibiltzen da. Eleiza Nagusiko arkupea auxe da. Bilbo'ko eleizetan antziñakoena da, eta urisortzea baiño leenago be ba-egoan. Gotiko tankeran egiña da, eta bere dorre liraiñak ikusi aal izan dau Bilbo'ren anditzea. URI ZAARRAREN erdi-erdian dago.*
- *Benetan ikusgarria da.*
- *Orain Korreo kaletik Arenal'era joango gara. Ona emen Arenal'ko eguras-*

Arenal, con su arboleda y los jardines adornados de flores. Hay un quiosco en el centro y todos los días de fiesta la banda municipal de música toca conciertos. A la derecha está la iglesia de San Nicolás y a la izquierda el teatro Arriaga con el puente para unir a la población vieja con la nueva. ¿Qué te parece el CASCO VIEJO?

- *Que es muy agradable y encantador.*
- *Sí, es admirable. Nuestros antepasados le llamaban "LA TASITA DE PLATA". Ahora vamos a comer y a la tarde veremos la parte nueva.*
- *Eso está muy bien. Vamos, pues.*

.....

- *Juan, estamos pasando por el puente del Arenal. Ahí tienes el río Nervión.*
- *¡Ené! ¡Qué sucia está el agua!*
- *Sí, desgraciadamente como siempre, por los desperdicios de las fábricas.*
- *¡Qué lástima!*
- *Mira, desde aquí se ve el Ayuntamiento y el primer puente levadizo.*
- *¡Bonita vista! ¿Cuántos puentes hay?*
- *Siete: cuatro firmes como éste, dos levadizos y uno colgante nuevo.*
- *Esta es la llamada Plaza Circular. Es el lugar que tiene el mayor tránsito de Bilbao. Por aquí pasan sin cesar muchos automóviles y personas en todas direcciones.*
- *Es verdad, pasan a raudales. Y la estatua que está en el centro de la plaza ¿de quién es?*
- *La del Señor de Vizcaya: Diego López de Haro, fundador de la villa.*
- *Ese edificio grande y hermoso ¿qué es?*
- *Es el nuevo Banco de Vizcaya. Los otros edificios del contorno son tam-*

toki polita, bere zugazti ta lorebaratzaz apaindurik. Erdian erestoki bat dago, estalpean, eta jai egun guztietan erri-eresbatzak soñualdiak joten dauz. Nikola Deunaren eleizea eskui-aldean dago eta Arriaga antzokia ezker aldean. Erdian, ZATI ZAAARRA BARRIAZ batuteko, zubi bat. Zer deritxazu BILBO'KO URI ZATI ZAARRA?

- *Guztiz atsegiña ta zoragarria dala.*
- *Bai, ikusgarria da. Gure asabak "LA TASITA DE PLATA" eritxoen. Orain, goazen bazkaltzera ta arratsaldean ZATI BARRIA ikusiko dogu.*
- *Ori ederto dago. Goazen ba.*


.....

- *Jon, Arenal'ko zubitik igaroten gara orain. Or dozu Nerbion ibaia.*
- *Ene! Bai ur loaia dagoala!*
- *Bai, zoritxarrez beti lez, ola ta lantegien ondakiñakaitik.*
- *Au tamala!*
- *Begira, emendik Udal-etxea eta leenengo zubialtzagarria agiri dira.*
- *Ikuspegi polita! Zenbatzuk zubi dagoz?*
- *Zazpi: lau zubi-lotu, onen antzeko; zubialtzagarri bi, eta zintzil-zubi barria.*
- *Auxe da, Plaza Circular deritxoena. Bilbo'ko joan-etorririk andiena daukan lekua da. Emendik, eten barik igaroten dira berebil eta notin asko alde guztietara.*
- *Egia da, eurrez igaroten dira. Eta enparantz-erdian dagon giza-irudia norena da?*
- *Bizkai'ko Jaunarena: Diego López de Haro, uri onen iraslea.*
- *Etxe andi ta eder ori, zer da?*
- *Bizkai'ko Diru-etxe barria da. Inguru-ko beste etxeak be bai, Diru-etxeak*

bién Bancos, excepto ése de enfrente. Ese es la estación del Ferrocarril del Norte.

Aquí tienes la admirable calle Gran Vía, la mejor y la más larga. Atraviesa a Bilbao de un extremo al otro. Empieza aquí mismo y termina allí lejos, en la Plaza del Sagrado Corazón. Además es ancha y está adornada de árboles.

- Verdaderamente es muy hermosa.
- En esta calle hay muchos Bancos y también tiendas hermosas con excelentes escaparates muy adornados.
- Sí, por cierto, los estoy viendo con agrado. Y ese palacio hermoso, construido con piedras labradas, ¿qué es?
- Es la Diputación de Vizcaya.
- Es digna de admiración.
- Juan, he aquí la Plaza de Moyúa, la más hermosa y bonita de Bilbao.
- ¡Ené, ésta sí que es encantadora! No he visto nunca otra como ella: adornada con flores y con un hermoso surtidor de agua en el centro. Las casas que la rodean parecen palacios. ¡Es admirable!
- Sí, a decir verdad, así es. Este palacio es el Gobierno Civil. Ese otro la Delegación de Hacienda. Y aquel otro el Hotel Carlton. Allí al final de la calle está el monumento del Sagrado Corazón.



- Mira, Juan. Aquí tienes el Arbol de Guernica y a su lado la Casa de Jun-tas.
- ¡Qué hermoso!
- Sí, es muy hermoso, pero este árbol

dira, aurreko ori izan ezik. Ori, Iparraldeko Burdinbidearen geltokia da. Emen dozu Gran Vía kale arrigarria, onena ta luzeena. Bilbo, ertz batetik bestera zearkatzen dau. Ementxe asten da eta an urrunean, Biotz Deunaren enparantzan amaitzen da. Gaiñera, zabala da ta zugatzez apaindu-rik dago.

- Egiaz, guztiz ederra da.
- Kale onetan Diru-etxe asko dago eta baita saltoki ederrak be, erakustoki bikaiñez oso apainduak.
- Bai orixe, begi onez ikusten dodaz. Eta arrianduaz jasariko jauregi eder ori, zer da?
- Bizkai'ko Aldundegia da.
- Ikusgarria da!
- Jon, ona emen Moyua enparantza, Bilbo'ko ederrena ta politena.
- Ene, auxe bai zoragarria dala! Ez dot iñoiz ikusi beste bat berau lakorik: lorez trebeki apaindua eta erdi erdian ur-txirrizta ederra. Inguruko etxeak jauregiak dirudie. Arrigarria da!
- Bai, egia esan, olantxe da. Jauregi au Erri Jauriaritza da. Beste ori Ogasun-Ordezkaritza. Eta beste a Carlton Ostatua. An, kale-amaieran, Biotz Deunaren oroitarría dago.

28'garren ALKARRIZKETA GERNIKA'KO ZUGATZA.

CONVERSACION 28.ª El Arbol de Guernica

- Beitu, Jon. Emen dozu Gernika'ko Zugatza eta bere alboan Batzar-Etxea.
- Bai ederra dala!
- Bai, oso ederra da, baiña zugatz au,

es el retoño del viejo roble: bendito y amado por todos los vascos.

—¿Por qué dices: bendito y amado?

— *Antiguamente, a la sombra de este roble los apoderados de los pueblos hacían sus leyes que cumplían fielmente: porque eran buenas, justas y convenientes y vivían felices.*

— *Entonces, aquellos tiempos eran mejores que éstos.*

— *¡Por supuesto! ¡No estaban sometidos a nadie. Además, "SO ARBOL" solían elegir un caudillo para defender su libertad. A éste le llamaron Señor.*

— *Y, ¿dónde está el roble viejo?*

— *Detrás de esa marquesina, pero actualmente es un pedazo de tronco del roble. Ahora entraremos a la Casa de Juntas, que es digna de ver. Hoy está convertida en museo.*

— *Entonces, lo veré contento.*

— *Vamos por aquí: la puerta está en ese atrio.*

— *Columnas hermosas tiene.*

— *¡Sí, por cierto! La Casa de Juntas es también la iglesia juradera de Nuestra Señora Santa María de la Antigua.*

— *¡Oye, Ignacio! Esta iglesia parece nueva.*

— *Así es. El siglo pasado la construyeron sobre los cimientos de la iglesia vieja. Entremos ya. Este es el Salón de Juntas.*

— *Es muy bonito y hermoso.*

— *Enfrente están el altar y la mesa de la presidencia y alrededor del Salón los escaños de los apoderados de los pueblos.*

— *Y esos cuadros que están en las paredes ¿a quiénes recuerdan?*

— *A los señores de Vizcaya.*

— *¿Quién fue el primer Señor de Vizcaya?*

leengo areitz zaarraren kimua da: euskotar guztiak onetsia eta maitatua.

— Zergaitik diñozu: Onetsia eta maitatua?

— Antxiñako aldietan, areitz onen kerizpean, errietako aldunak euren legeak egiten ebezan, eta zintzoro bete, onak, zuzenak eta egokiak ziralako, eta zoriontsu bizi ziran.

— Orduan, aldi areik oneik baiño obeak ziran.

— Jakiña! Ez egozan iñoren menpean. Gainera, "ZUGATZ-AZPIAN" guda agintari bat aukeratzen eben euren askatasuna zaintzeko. Agintari orreri Jauna eritxoan.

— Eta, nun dago areitz zaarra?

— Aterpe orren ostean, baiña gaur egunean areitz mukur bat da. Orain, Batzar-Etxera sartuko gara, ikusgarria da-ta. Gaur erakustoki biurtu da.

— Olan bada, pozik ikusiko dot.

— Goazen emetik: atari orretan dago atea.

— Zutarri ederrak ditu.

— Bai orixe! Batzar-Etxea, Antziñako Andra Miren'en ziñ-eleiza be bada.

— Entzun, iñaki! Eleiza onek barria dirudi.

— Olantxe da. Eleiz zaarraren oiñarrien ganean jaso eben joan zan gizaldian. Sartu gaitezcan ba. Auxe da Batzar-Aretoa.

— Polita ta ederra da.

— Aurrean, altarea ta Batzar-buruaren maia dagoz, eta Areto inguruan errietako aldunen jesarlekuak.

— Eta ormetan dagozan lauki orreik, nortzuren gomutagarri dira?

— Bizkaí'ko Jaunena.

— Nor izan zan Bizkaí'ko leenengo jaunena?

- *Mira el cuadro que está encima de la puerta: representa el juramento de Jaun Zuria, que la tradición le nombra el primer Señor, pero su existencia no está demostrada.*
- *¿Quién era, pues, ese Señor?*
- *Según se dice en una leyenda popular vasca (1), Jaun Zuria (que tenía el verdadero nombre de Lemor) era hijo de Morna, rey de Erin. Un día que andaban cazando jabalíes mató a su querido padre involuntariamente y le condenaron a destierro perpetuo.*
- *¿Cómo llegó hasta aquí?*
- *Salió en una lancha y los vientos del norte le arrastraron hasta la costa de Vizcaya y las olas le arrojaron a la playa de Mundaca. Allí le encontraron unos pescadores.*
- *¿Por qué eligieron a un extranjero Señor de Vizcaya?*
- *Porque en la feroz y sangrienta batalla de Arrigorriaga, Jaun Zuria, con los guerreros vascos, derrotó al ejército opresor de Ordoño.*
- *Verdaderamente eso parece fantasía, pero: ¿Quién fue históricamente el primer Señor?*
- *El primer Señor, según dice la historia, fue Iñigo López Ezquerria.*
- *Ignacio, ¿y quién fue el último?*
- *Esa es una historia muy larga para contar ahora, en casa la contaré luego. Vamos a ver el archivo de Vizcaya.*
- *¿Dónde está?*
- *Al otro lado de esta Sala.*
- *Y esta sala, ¿qué es?*
- *Es un pequeño museo. Aquí se conservan algunas cosas históricas. Mira: he aquí la guitarra de Iparragirre, autor del "Gernika'ko Arbola".*
- *¿Qué es esto?*
- *Orra ate-buruan dagon lauki ori: Jaun Zuriaren zin-egitea erakusten dau, leenengo Jaunarena, kondairak diñoanez, baiña bere izatea ez da ziurki egiztatu.*
- *Nor zan, ba, Jaun ori?*
- *Euskal-Erriko elezar batek diñoanez (1), Jaun Zuria (Lemor eban egiazko izena) Erin'go errege Morna'ren semea zan. Egun batean, basurde eizean ebiltzala, bere aita maitea il eban uste barik eta epaiak betirako erbesteratu eban.*
- *Zelan eldu ete zan onaiño?*
- *Itxasontziño baten urten zan, eta ipar-aizeak Bizkai'ko itxasaldera bultzatu eban, eta olatuak, Mundaka'ko ondartzara jaurti eban. An arrantzale batzuk aurkitu eban.*
- *Zergaitik aukeratu eban Bizkai'ko jauntzat atzerritar bat?*
- *Arrigorriaga'ko gudaqueta izugarri ta gorrian, Jaun Zuria'k, eusko-gudariekin, Ordoño'ren gudaroste zapaltzaillea birrindu ebalako.*
- *Asmakari bat dirudi orrek, baiña... nor izan zan edesti-arauz leenengo Jauna?*
- *Edestiak diñoanez, leenengo Jauna, Lopez eta Ezkerra'tar Eneko izan zan.*
- *Iñaki, eta nor izan zan azkenengoa?*
- *Ori luze da orain esateko, gero etxean jardungo dogu. Goazen Bizkai'ko idazkitegia ikustera.*
- *Nun dago?*
- *Areto onen beste aldean.*
- *Eta areto au, zer da?*
- *Erakustoki txiki bat da. Emen gomutagarri batzuk jagoten dira. Beitu: ona emen Iparragirre'ren kitarrea, "Gernika'ko Arbola"ren egillearena.*
- *Zer da au?*

(1) Cuentos populares de A. Trueba.

- *Esto es el altar portátil para las misas de campaña de los soldados vascos*
- *Auxe da eusko gudarien eskualdarea gudaldi-mezatarako, eta orreik dira*

y ésas son sus banderas. Esta estatu es un lanzador de barra. Aquí está la entrada del archivo.

— Entremos, pues.

— Mira, Juan: allí, en lugar especial, en aquel armario de caoba con letras de plata que dicen: "BIZKAI'KO LEGE ZAARRA" se guarda su libro original escrito a mano.

— Ignacio, todo esto es admirable, y ¿hasta cuándo tuvo vigor la Ley Vieja?

— Hasta el año mil ochocientos setenta y seis.

— Entonces ya ha pasado un siglo.

— Así es, y ahora sólo nos queda nuestro querido idioma. Por eso, todos los vascos debemos hablar siempre en euskera, para que no se pierda.

— Ignacio, ahora ¿a dónde podemos ir?

— Hasta el mediodía andaremos viendo el pueblo. ¿Qué te parece?

— Muy bien. Vamos.

euren ikurriñak. Irudi au palankari bat da.

Emen dago Idazkitegiko sarrera.

— Sartu, ba.

— Ara, Jon: an, leku berezian, kaobazko arasa aretan, "BIZKAI'KO LEGE ZAARRA" izeneko eskuz leen-idatzia jagoten da, azalean zidarrezko izkiak ditula.

— Iñaki, ikusgarria da dan-dana. Eta noiz arte iraun eban Lege Zaarrak?

— Milla zortzireun ta irurogeta-amasei garren urterarte.

— Olan ba, gizaldi bat bete da.

— Olantxe da. Orain Euskerea, geure izkuntza maitea soillik geratzen yaku. Orregaitik, euskeldun danok, euskeraz egin bear dogu beti, galdu ez daiten.

— Iñaki, orain nora joan gaitেকে?

— Eguerdirarte erria ikusten ibilliko gara. Zer deritxazu?

— Ederto, goazen.




29'garren ALKARRIZKETA

OPORRALDIAK ETA UDALDIA

CONVERSACION 29.ª

Las vacaciones y el verano



— ¡Hola, Pedro!

— ¡Hola, Ignacio! ¿Qué me dices?

— Que estoy muy contento.

— ¿Por qué estás tan contento?

— Porque pronto viene el verano y con él los buenos tiempos, las fiestas de los pueblos y las vacaciones para divertirse de lo lindo.

— ¡Dichoso tú! Y ¿adónde irás a pasar las vacaciones?

— Como siempre. Nosotros, desde que nos casamos, solemos ir a Lequeitio.

— Agur Kepa!

— Kaixo Iñaki! Zer diñostazu?

— Poz-pozik nagoala.

— Zergaitik zagoz orren pozik?

— Laster udea datorrelako eta beragaz egualdi ederrak, errietako jaiak eta oporraldiak, polit-polito jolasteko.

— Zorioneko zu! Eta, nora joango zara oporraldiak igaroten?

— Beti lez. Gu, ezkondu giñanetik, Lekeitio'ra joaten gara.

- *¡Hermoso sitio para veranear!*
- *Sí, por cierto. Lekeitio es un pueblo pequeño, pero encantador.*
- *Y allí, ¿qué vida hacéis?*
- *Excelente: por las mañanas al puerto a pasear y ver entrar los barcos pesqueros. Después a la playa, con la mujer y los hijos, a tomar el sol y un hermoso baño. Después de comer hago una siestecita y luego damos un paseo por los alrededores del pueblo, unos días por la costa y otros por las aldeas o los montes. También suelo ir a cazar y pescar.*
- *Verdaderamente pasáis muy bien el tiempo. Y, ¿cuándo soléis ir?*
- *Solemos ir dos o tres días antes de la fiesta de San Pedro.*
- *¿Por qué soléis ir para ese día?*
- *Porque ese día hacen el tradicional baile de la kaxarranka.*
- *¿Qué es, pues, ese baile?*
- *Es un baile genuino del pueblo de Lekeitio. Se baila desde hace seiscientos años. Es el homenaje a la lealtad de los Mayordomos de la Cofradía de Pescadores al terminar su gestión. Por eso, se conserva amorosamente esa vieja costumbre.*
- *Y ¿cómo es ese baile?*
- *Ocho fornidos pescadores llevan a hombros una gran arca. Sobre el arca otro pescador, vestido de bailarín, baila al son del chistu y tamboril.*
- *¿Cómo está vestido ese bailarín?*
- *Está vestido de chaqué negro, camisa y pantalón blanco, pañuelo de cuello y faja roja. Tiene en la mano izquierda un sombrero de copa alta y en la derecha un banderín rojo con las llaves de San Pedro bordadas de oro.*
- *Entonces, será digno de ver ese baile.*
- *Udaldia emoteko toki ederra!*
- *Bai orixe! Lekeitio erri txikia da, baiña zoragarria.*
- *Eta an, zelako bizitza egiten dozue?*
- *Bikaiña: goizetan kaira, egurastera eta arrantza-itxasontziak sartzen ikustera. Gero ondartzara, emazte ta seme-alabekin, eguzkia ta bustialdi eder bat artzera. Bazkal-ostean lokukutxo bat egiten dot eta gero erri inguruetan ibillaldi bat egiten dogu, egun batzuetan itxasaldetik ta beste batzuetan baserri edo mendietatik. Eizan eta arrantzuan egitera be joaten naz.*
- *Benetan astia ederto emoten dozue. Eta, noiz joaten zarie?*
- *Kepa Deunaren jaia baiño bi edo iru egun leenago joaten gara.*
- *Zergaitik joaten zarie egun orretarako?*
- *Egun orretan kaxarranka-dantza antziñekoa egiten dabelako.*
- *Zer da ba, dantza ori?*
- *Lekeitio-erriko dantza jator bat da. Seireun bat urtez onuntz dantzatzen da. Arrantzale-Anaidiaren Ondasun-zaiñen zintzotasunari omenaldia da, euren zeregiña amaitzean. Orregaitik, oitura zaar ori, maitekero jagoten da.*
- *Eta, zelakoa da dantza ori?*
- *Zortzi arrantzale indartsuk sorbalde-tan kaxa andi bat eroaten dabe. Kaxa ganean beste arrantzale batek, dantzari-jantzita, dantzan egiten dau txistu-danboliñaren soñuz.*
- *Zelan jazten da dantzari ori?*
- *Jake luze baltza, arkondara ta praka zuriak, sama-zapi ta garriko gorritz jantziten da. Ezkerreko eskuan kape-la luze bat dauka eta eskumakoan ikurrintxu gorri bat, Kepa Deunaren giltzak urrez josiak daukazala.*
- *Orduan, dantza ori ikusgarri izango da.*

- *Sí, por supuesto. En otros tiempos el bailarín se vestía de obispo, representando a San Pedro, y a sus lados otros dos pescadores, representando a San Juan y San Andrés. En la cara se ponían una máscara con barbas blancas, y así andaban por las calles.*
- *Pero en el año mil seiscientos ochenta y dos el obispo de Calahorra prohibió poner esos vestidos eclesiásticos: "porque daba escándalo a cristianos y forasteros y era objeto de risa para los enemigos de la Iglesia" (1), y ordenó el cambio por estos otros de ahora.*
- *¡Muy bien hecho, sí, señor! Y... ¿cuándo volvéis a Bilbao?*
- *Después de pasar las célebres fiestas de San Antolín, en setiembre.*
- *¡Casi tres meses de vacaciones!*
- *No es tanto, no. Eso para mi mujer y mis hijos. Para mí nada más veinte días y todos los sábados que voy y los lunes que vengo.*
- *Bai, jakiña. Leenago, dantzaria goztain itxuraz jantziten zan, Kepa Deunaren antzera, eta alboetan beste arrantzale bi, Ander eta Jon Deuten itxuraz jantzirik. Arpegian bizar zurdun mozorroa ipinten eben, eta olan kalerik-kale ibiltzen ziran.*
- *Baiña, milla seireun ta larogeitabigarreren urtean, Kalaorra'ko gotzaiñak eliz-jantzi orreik ipintea galerazo eban: "Kristiñau ta arrotzai gaizpidea emon eta Eleiz-arerioentzat barregarritzko ikuskizuna zalako" (1), eta oraingo beste oneik erabiltea agindu eban.*
